

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DEIALDIA 2025eko deialdia

UPV/EHUko Euskararen IV. Plan Gidarian (2023-2027) pertsonak deritzon ardatz estrategikoaren barruan, zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatzea da helburuetako bat.

Hori dela-eta, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak deialdi hau argitaratzen du:

OINARRIAK:

1. HELBURUA

Deialdi honek, UPV/EHUko kide guztiak kontuan hartu nahi ditu, euskararen erabilera sustatzeko. Beraz, bai irakasleek, ikertzaileek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta ikasleek ere egin ditzakete proposamenak deialdi honetan. Deialdiak euskararen erabilera areagotzeko askotariko ekimenak diruz laguntzea du helburu.

2. ESKAEREN AURKEZPENA

2.1. Aurkezteko tokia. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.artikuluaren arabera, dokumentuak modu honera aurkeztu beharko dira:

UPV/EHUko [erregistro elektronikoan](#), URL helbidean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzan aurkeztuz (U02000384), zehaztu behar delarik "Eskatzen du" atalean, "Euskararen erabilera sustatzeko deialdia 2025".

2.2. Beharrezko dokumentazioa.

- i. Eskaria, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzako webgunean eskura daitekeen eredu erabiliz.
- ii. Faktura, UPV/EHUren izenean eta haren identifikazio fiskala daukatela (Q4818001B).
- iii. Gauzatutako ekimaneenari buruzko txostena.

2.3. Eskaerak aurkezteko epea: 2025eko urriaren 20tik azaroaren 10era arte (hori barne).

3. EBAZPENA

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeak erabakia emango du, eta onartutako eta ezetsitako eskaeren zerrenda zein atzera egindako eskaerena argitaratuko ditu. Interesdunek horren berri jasoko dute Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordetzaren iragarki-tauletan eta webgunean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Behin betiko erabakiak amaitzen du bide administratiboa, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordearen aurrean, erabakia argitaratzen denetik hilabeteko epean.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa erabaki ondoren, epe bakarrean egingo da diru laguntzen ordainketa.

4. FINANTZIAZIOA

Deialdi honek egotzita daukan diru kopurua 14.000€-koa da. **Behin aurrekontua agortuta ez da diru-laguntza gehiagorik esleituko.**

Kontzeptu finantzarriak honako hauek dira:

- Material suntsikorra (bulegoko materiala).
- Erreprografia (kartelak, posterrak,...).
- Euskaraz antolatutako jarduera akademiko zein kulturalak (bilerak, jardunaldiak, ikastaroak, hitzaldiak, bertso-saioak, musika-saioak, antzerki-saioak,...).

Kontuan izan administrazio publikoko legearen arabera protokolozko gastuak (janariak, edariak, otorduak...) ez direla finantzarriak

5. INTERPRETAZIOA

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeak baimena dauka deialdi honetako arauak argitzeko eta garatzeko.

6. HARREMANTERAKO

euskara.erreord.teknikaria@ehu.eus

Leioan, 2025eko urriaren 17an.

Miren Igone Zabala Unzalu

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea